# Zerbitzu-eginkizunak

# Erabiltzailearen eskuliburua

# Sarbidea, HEZIGUNEAtik:

# irakasleen luzapenak

**Dokumentu hau EJIE - Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkartearen jabetzakoa da, eta beronen edukia KONFIDENTZIALA da. EJIEk aurretik idatzizko baimenik eman ezean, dokumentu hau ezin da erreproduzitu –ez osorik, ez zatika–, ez beste batzuei erakutsi, edo beste helburu batzuetarako erabili, ez bada berau sortuta bete nahi ziren helburuetarako. Kontratu baten barruan emanez gero, kontratuan espresuki baimenduta dagoen horretarako erabili beharko da. EJIEk ez du erantzukizunik izango dokumentuaren edizioan akatsik edo omisiorik badago.**

| Bertsioa | Data | Aldaketen laburpena | Egilea: | Nork onartua: |
|---|---|---|---|---|
| 0,1 | 2023/11/01 | Lehenengo bertsioa | JMA | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

AURKIBIDEA

**1. Erregistratu gabeko erabiltzaileak ..... 4**

1.1 Hezigunerako sarbidea ..... 4
1.2 Erregistroa ..... 4
1.3 Sarbidea eta pasahitz-aldaketa ..... 7

**2. Hezigunera sartzea ..... 8**

2.1 Hezigunerako sarbidea ..... 8
2.2 Zerbitzu-eginkizunak kudeatzeko menua ..... 9

**3. Zerbitzu-eginkizunen inprimakia: irakasleen luzapenak ..... 11**

3.1 Eskatzailearen datuei buruzko fitxa ..... 11
3.2 Luzapenen datuei buruzko fitxa ..... 12
3.3 Eskaera aurkezteko fitxa ..... 13

**4. Eskaeraren egiaztagiria/frogagiria ..... 15**

4.1 Eskaeraren frogagiria ..... 15

**5. Eskaera berrikustea eta baloratzea ..... 17**

**6. Informazio orokorra ..... 20**

# 1. Erregistratu gabeko erabiltzaileak

## 1.1 Hezigunerako sarbidea

Sartzeko esteka: https://hezigunea.euskadi.eus/es/

## 1.2 Erregistroa

Erabiltzaileak, erregistratu gabe badaude, “Izen-ematea” estekan sartuta erregistratu behar dira. Erregistratuta badaude, hurrengo atalera joan behar dira.



Dokumentu-mota hautatu (NAN/Bizileku-baimena), eta honako hauek sartu behar dira: hautatutako aukerari dagokion zenbakia, iraungitze-data (NANaren kasuan) eta, azkenik, jaiotze-data. Eremu guztiak bete ondoren, egiaztapen-testua sartuko da, eta, ondoren, baieztatuko da dena zuzena dela, «Baieztatzen dut eman ditudan datuak ...» aukeraren bidez. Behin dena ondo beteta, jarraitu egingo da.




Posta elektronikoko helbidea eta telefono mugikorra sartuko da, eta hor jasoko da erregistroa amaitu izanaren abisua.



Erregistratzean emandako telefonora bidalitako kodea sartzea eskatuko da.




Eta prozesua ondo burutu dela baieztatuko da.




Lehen aldiz sartzean, NANa eta pasahitza sartu behar dira (pasahitza posta elektronikora bidaliko da).

## 1.3 Sarbidea eta pasahitz-aldaketa

Jasotako datuekin sartuko da, eta pasahitza aldatzeko aukera agertuko da:




Behin prozesua amaituta, erregistroa amaituta geldituko da, eta pasahitz berriarekin sartu ahal izango da. Sarbidea, e-mail edo SMS bidez jasotako datuekin.

# 2. Hezigunera sartzea

## 2.1 Hezigunerako sarbidea

Sartzeko esteka: https://hezigunea.euskadi.eus/es/

Erabiltzaileak, bere eremu pertsonalera sartu ahal izateko, erabiltzaile-kodea eta pasahitza sartu beharko ditu, edo bestela, XLNETs erabiltzaile-kodearekin sar daiteke. Erregistratuta egon ezean, ikusi aurreko atala.




Behin identifikatuta, bere eremu pertsonala ikusiko du, menuaren ezkerraldean, eta horren barruan, 'Izapideak, langileen sailarekin' atala. Kasu horretan, beste aukera bat agertuko da eskuinaldean, "Zerbitzu-eginkizunen eskaerak" izenekoa, irudian ikusten den bezala. Hortik, eskabideak eskuratu ahal izango dira:



Aukera hori hautatu ondoren, zerbitzu-eginkizun guztiak kudeatzeko pantaila bat agertuko da.

## 2.2 Zerbitzu-eginkizunak kudeatzeko menua

Zerbitzu-eginkizunen menuan sartu ondoren, hiru ataletan banatutako pantaila bat bistaratuko da, jarraian azaltzen den moduan.

A) Lehenengo atala, **eskaera bati hasiera ematekoa**: dauden deialdi irekiak erakutsiko dira, aurkezteko epea oraindik zabalik dutenak. Kasu horretan, bi baldintzatzaile egon behar dira, deialdia agertzeko:
   a. Hezigunea-ko erabiltzaileak parte hartzeko baldintzak betetzen ditu.
   b. Hezigunea-ko erabiltzaileak EZ du aurkeztu zerbitzu-eginkizun horretarako eskaerarik.




B) Bigarren atala, non erabiltzaileak **egindako eskaerak** agertzen baitira, eskaera aurkezteko epearen barruan daudenak. Kasu horretan, erabiltzaileak eskaera bat aurkeztu du jada. Eskaera hori 'Izapidetzen' egoeran egon daiteke, eta, beraz, oraindik amaitu gabe.

***Oharra***: Aurkeztu diren eskaerak bakarrik sartuko dira Sailak aztertuko duen prozesuan, atal honetan 'Izapidetzen' egoeran daudenak ere erakusten diren arren. Ziurta ezazu eskaera aurkeztu duzula, **"Aurkeztu den eguna"** zutabean begiratuta. Balioren bat aldatzea erabakiko balitz, eskaera berriz aurkeztu beharko litzateke.




C) Hirugarren atala, non erabiltzaileak **aurkeztutako eskaera** guztiak erakusten baitira, jada aldatzeko aukerarik gabe. Atal honetan, kontsulta daiteke zer eskatu den eta aurkeztutako eskaera bakoitzaren egoera zein den.




Hirugarren atal honetan, hau egin daiteke:

- Eskaeraren egoera kontsultatu.
- Behin betiko ebazpena kontsultatu, non balorazioa eta ebazpena ikus baitaitezke, eskuragarri egonez gero.

# 3. Zerbitzu-eginkizunen inprimakia: irakasleen luzapenak

Luzapen-eskabideak hiru fitxa ditu:

## 3.1 Eskatzailearen datuei buruzko fitxa

NANari eta izen-abizenei buruzko datuak automatikoki betetzen dira identifikazio-datuen bidez. Posta elektronikoa eta telefonoa derrigorrezkoak dira, baina Hezkuntza Sailean erregistratuta dagoen informazioarekin beteko dira. Edonola ere, alda daitezke, baina informazio hori zerbitzu-eginkizunetarako aurkeztutako eskaera horretarako bakarrik erabiliko da. Hona hemen pantaila:



## 3.2 Luzapenen datuei buruzko fitxa

Fitxa honetan, behealdean, eskaera egiten ari den erabiltzailea zein lanpostutan erregistratuta dagoen erakusten da. Hori informatzeko bakarrik da. Pantaila horretan, erabiltzaileak ‘Adierazten du’ atala bete behar du, eta hor adierazi behar du betetzen ari den lanpostuan jarraitu nahi duen ala horri uko egin nahi dion.




Pantaila horretan, halaber, eskatzailea betetzen ari den zerbitzu-eginkizunetako lanpostua erakutsiko da. Lanpostua berreskuratzerik ez badago, abisu bat erakutsiko da, eta erabiltzaileari adieraziko zaio ezin izan dela lanpostua berreskuratu. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak bere eskaerarekin aurrera jarraitu ahal izango du, hautaketa-prozesuan.

## 3.3 Eskaera aurkezteko fitxa

Fitxa honetan, datuen babesari buruzko informazioa erakusten da, eta aukera ematen da eskaera aurkezteko, 'Eskaera aurkeztu' aukeraren bidez (eskuinaldean ikus daiteke, beheran).




'Eskaera aurkeztu' aukerak zerbitzu-eginkizunaren luzapenerako eskaera jada aurkeztu izana adierazten du.

Eskaera, behin aurkeztuta, Sailak aztertzeko moduan egongo da, eta bi ekintza egin ahal izango dira eskaera horren gainean:

- Indarrean dagoen eskaera aldatu: eskaera epe barruan badago, erabiltzaileak eskaera hori aldatu ahal izango du, eta aldatu ondoren, berriro aurkeztu beharko du. Kasu horretan, eskaera aurkeztuta badago, beti agertuko da Aldatu botoia, pantailaren beheko aldean:




  Aldatzen bada, berriz sakatu behar da 'Eskaera aurkeztu' aukera, eskaera aurkeztu dela jasota gelditzeko eta prozesuan jarraitu ahal izateko.

- Egiaztagiria eskuratzea: egiaztagiria ikusteko, "Eskaeraren Frogagiria" aukera sakatu behar da.


Eskubideak egikaritu
Eskubide horiek erabiltzeko aukera duzu tratamenduaren arduradunaren aurrean, eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/
Era berean, aukera daukazu edozein erreklamazio aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agentzian, edo aurretiazko erreklamazioa egin dezakezu datuak babesteko ordezkariaren aurrean: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/
Registro de Actividades de Tratamiento (RAT)
Eskaera aurkeztu zen eguna:
2024/01/09 15:50
ESKAERAREN FROGAGIRIA
Aurrekoa
ALDATU

# 4. Eskaeraren egiaztagiria/frogagiria

Behin eskaera bidalita, egindako bidalketaren egiaztagiria/frogagiria erakusten da, erregistroko datuak dituena.

## 4.1 Eskaeraren frogagiria

| EUSKO JAURLARITZA – HEZKUNTZA SAILA / GOBIERNO VASCO – DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN | Hezkuntza Saila |
|---|---|

**CCSSJUSTIFICANTE SOLICITUD / ESKABIDEAREN EGIAZTAGIRIA**

| | |
|---|---|
| Convocatoria / Deialdia: **Prórrogas de comisiones de servicio docentes 2024 / Ikaskizun prorrogak 2024**<br>Curso acdémico / Ikasturtea: **2024-2025** | Fecha presentación / Aurkeztu eguna: **22/01/2024 / 2024/01/22**<br>Solicitud / Eskaera: **439**<br>Núm. registro / Erregistro zbk: **2024RTE00001636** |

DATOS SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN DATUAK

| | |
|---|---|
| DNI NAN / NIE: XXXXXXXXXXXX<br>Nombre / Izena: XXXXXXXXXXXX<br>Email:<br>Telef:<br>Idioma com / Kom hizkuntza: **bilingüe** | F. nacimiento / Jaioteguna:<br>N.R.P:<br>Perfil / Profila :<br>Rel. empleo / enplegu: |
| Observaciones / Oharrak: | |

| |
|---|
| Centro donde presta los servicios actualmente / Ikastetxe honetan ematen ditu zerbitzuak gaur egun:<br>**012987 - Zeraingo Euskal Girotze Barnetegia**<br>Puesto / Postu: **INFORMATICA / INFORMATIKA** |

| |
|---|
| Manifiesta / Adierazten du:<br>**Su voluntad de continuar prestando servicio en comisión de servicios en dicho centro / Zentro horretan zerbitzu-eginkizunetan zerbitzua ematen jarraitzeko borondatea duela** |

| **Información sobre protección de datos** | **Datuen babesari buruzko informazioa** |
|---|---|
| Gestión de personal<br>Dirección de Gestión de Personal,<br>Departamento de Educación<br>Detalle de la finalidad<br><br>• Gestión de personal docente y no docente. | Langileak kudeatzea<br>Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza,<br>Hezkuntza Saila<br>Helburuaren xehetasuna<br><br>• Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa. |
| **Legitimación**<br><br>• Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.<br>• Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.<br>• LEY 2/1993, de 19 de febrero,de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.<br>• REAL DECRETO LEGISLATIVO 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.<br>• REAL DECRETO LEGISLATIVO 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores. | **Legitimazioa**<br><br>• Tratamendua beharrezkoa da kontratu bat egikaritzeko, zeinetan interesduna parte baita, edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.<br>• Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzek.<br>• 2/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, EuskalHerriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.<br>• 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena<br>• 2/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena |
| **Destinatarios**<br><br>• Otros órganos de la Administración del Estado.<br>• Otros órganos de la Comunidad Autónoma. | **Hartzaileak**<br><br>• Estatuko Administrazioko beste organo batzuk.<br>• Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk |
| **Normativa aplicable**<br><br>• Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.<br>• Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. | **Aplikatu beharreko araudia**<br><br>• 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.<br>• 3/2018 Lege Organikoa (leiho berri batean irekitzen da), abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. (Gaztelaniaz) (BOE, 294. zk., 2018ko abenduaren 6a). |
| **Ejercicio de derechos**<br><br>Usted tiene la posibilidad de ejercitar estos derechos ante el Responsable del tratamiento mediante el procedimiento de ejercicio de derechos en materia de protección de datos:<br>http://www.euskadi.eus/servicios/10842/<br><br>Así mismo, usted tiene la potestad de dirigir cualquier reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, o puede realizar una reclamación previa ante la Delegada de Protección de Datos:<br>http://www.euskadi.eus/servicios/10843/ | **Eskubideak egikaritu**<br><br>Eskubide horiek erabiltzeko aukera duzu tratamenduaren arduradunaren aurrean, eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez:<br>http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/<br><br>Era berean, aukera daukazu edozein erreklamazio aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agentzian, edo aurretiazko erreklamazioa egindezakezu datuak babesteko ordezkariaren aurrean:<br>http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/ |

# 5. Eskaera berrikustea eta baloratzea

Luzapena eskatzeko epea amaitu ondoren, eskaera zerbitzu-eginkizunen pantailako hirugarren atalean kokatzen da, lehen ikusi dugun bezala.




Zerbitzu-eginkizunetarako, botoi batzuk irekiko dira eskuinean. Botoi horiek aktibatu eta desaktibatu egingo dira, eskaeraren egoeraren arabera. Luzapenen kasuan, honako hauek egon daitezke aktibo:

- Ikusi eskaera: botoi horren bidez, pantaila bat irekitzen da, eta erabiltzailearen eskaera bistaratzen da.
- Ikusi balorazioa: ebazpena jada argitaratuta badago eta eskaerak balorazio bat egina badu, botoi hori aktibo egongo da. Botoi horren bidez, pantaila bat irekiko da jasotako balorazioa berrikusteko. Eskaerari EZEZKOA EMAN bazaio, beti kontsultatu ahal izango da atal hori. Botoi hori sakatu ondoren, honako pantaila hau agertuko da, ohartarazten duena erabiltzaileak soilik informazioa kontsulta dezakeela:




Onartu ondoren, balorazioaren xehetasuna agertuko da, eta lehenengo fitxan eskatzailearen datuak agertuko dira.



Hurrengo botoiari emanda, balorazioko erantzunak eta emaitza erakutsiko dira, baita oharrak ere, halakorik balego.




Azken fitxan, datuen babesari buruzko datuak agertzen dira.


EBALUAZIOA AURKEZTU

1. ESKATZAILEAREN DATUAK | 2. BALORAZIO DATUAK | 3. EBALUAZIOA AURKEZTU

**Langileak kudeatzea**

**Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila**

**Helburuaren xehetasuna**
- Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

**Legitimazioa**
- Tratamendua beharrezkoa da kontratu bat egikaritzeko, zeinetan interesduna parte baita, edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.
- 2/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

**Hartzaileak**
- Estatuko Administrazioko beste organo batzuk
- Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk

**Aplikatu beharreko araudia**
- 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa (leiho berri batean irekitzen da), abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. (Gaztelaniaz) (BOE, 294. zk., 2018ko abenduaren 6a)

**Eskubideak egikaritu**
Eskubide horiek erabiltzeko aukera duzu tratamenduaren arduradunaren aurrean, *eskubideak baliatzeko* prozeduraren bidez: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/

Era berean, aukera daukazu edozein erreklamazio aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agentzian, edo *aurretiazko erreklamazioa* egin dezakezu datuak babesteko ordezkariaren aurrean: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/

Registro de Actividades de Tratamiento (RAT)

2024/01/24 | Gaztelania

Aurrekoa

# 6. Informazio orokorra

- Erabiltzaile bakoitza eskaera bakar batera aurkez daiteke.
- Hezigunea-ko Eremu pertsonala/Nire eskaerak atalean, eskaera kontsultatu eta aldatu ahal izango duzu, baldin eta eskaera-epea irekita badago.

A. Eskaera aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, bigarren atalean ikusiko dira hasiera eman zaien eskaerak. Aurkezpen-data izateak zehaztuko du aurkeztu den edo oraindik "Zirriborroa" egoeran dagoen.




B. Aurkezteko epea amaitzen denean, hirugarren atalean, eskaeraren egoeraren berri emango da. Hau da, ebazpena erakutsiko da, ebatzi bada, eta balorazioa ikusi ahal izango da.




**Oharra:** Luzapen-motako eskaeretan ez da inola ere onartuko erreklamaziorik egitea, ezta eskabideak zuzentzea ere.